

azpeitian zer?

udal aldizkaria

183. zenbakia



ADINEKOEN BEHARREI ERANTZUTEN SAIA TZEN

Azpeitiko Udalak herriko adinekoen egoera aztertu du, eta pentsioak 1080 euro arte osatzeko laguntza berezia jarri du abian



ERREPIDEEN SEGURTASUNA

Gazteengan kontzientiazio programarekin jarraitu du Udalak



JARDUERA FISIKOA

Onura fisiko, psikiko eta sozialak lortzeko programa berria, abian


azpeitiko udala
denon artean

TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailtza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Azaroaren 6, 10, 11, 13, 23 eta 29

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Azaroaren 5, 17, 18, 19 eta 26

BERISTAIN

Urbitate auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Azaroaren 1, 3, 4, 9, 12, 16, 22 eta 28

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Azaroaren 8, 15, 20, 24, 25 eta 30

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Azaroaren 2, 7, 14, 21 eta 27

ALE HONETAN ZER?

Azpeitia ezagutzen	2
Bizitzaz blai	3
ADINEKOEN AZTERKETA	6
Bizikidetza.....	10
Jarduera fisikoa	12
Formazioa	14

- Argitaratzailea: Azpeitiko Udal
 - Egilea: Prentsa bulegoa
 - Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 - Argazkiak: Arnaitz Rubio Aprea eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa
- Ale kopurua: 7.000
L.G. SS - 1148/91

AZPEITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONDAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN

INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!



ORUBEA



Iraurgiko Salvatierra hiribilduko herriak lau ate zituen eta berruan hiru kale: gaur egun Erdikalea, Enparan kalea eta Elizkalea izenez ezagutzen dira. Harresia eraiki zutenen barruko lurraldea bizitzora etorritako biztanleen anaien banatu zuten. Familia bakoitzari antzerako lur saila eman zitzaion, orubea. Orube horretan animaliak hazi, baratzak jarri eta etxebizitza eraikitzen zuten.

udalaldizkaria

BIZITZAZ BLAI

ERREPIDEAREN ARRISKUAK AZALDUZ, KONTZIENTZIA PIZTU

BIZITZAZ BLAI EGITASMOAREN BIGARREN EDIZIOA ABIAN JARRI DU UDALAK HERRIKO IKASLEEN ETA GURASOEN ARTEAN



Abiaduraren arriskuez jabetzeko eta errepideko istripuen prebentziorako gazteei zuzendutako Bizitzaz Blai kanpainaren bigarren edizioa abiatu du Azpeitiko Udalak. Proiektuaren funtsa Errezilgo Udalak 2016 urtean herrian abian jarritako Bizitzaz Blai egitasmotik dator. "Azpeitian ere azken hamarkadetan dagoen kezkak bultzatuta galdezka joan ginen, gurean ere lantzeko. Abiadura eta istripuen gaia gure bailarari oso lotuta dago, eta gaiaren lanketa egiteko momentua zela iruditu zitzaigun", agertu du Estitxu Elduairen Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

"ABIADURA ETA ISTRIPIEN GAIA GURE BAILARARI OSO LOTUTA DAGO, ETA GAIAREN LANKETA EGITEKO MOMENTUA ZELA IRUDITU ZITZAIGUN"

Inflexio puntu horretatik abiatuta, horrelako gai delikatu eta sentsiblea eragile ugariarekin elkarlanean abiatzeko bilerak egiten hasi zen Udal.

Hala nola, errepide istripuren batean lesio larriak izan dituztenak, istripua jasan dutenen senitartekoak, DYA, suhiltzaileak, Udaltzaingoa, gidariak, pilotu profesionalak, Stop istripuak eta Errezilgo udal ordezkariak.

Izan ere, errepidean gertatzen diren istripuen gehienak saihestu daitezke; hala diote adituek. Eta hori da Udalaren nahia: gurean ezbehar bakar bat ere ez egotea. Helburu horrekin jarri zen martxan Bizitzaz Blai egitasmoa, herriko gazteei zuzenduta, autoan edo motoan behar baino abiadura handiagoan ibiltzeak izan ditzakeen arriskuez kontzientziatzeko.

udalaldizkaria



ADINEKOEN EGOERA EZAGUTZEAN, BEHARREI ERANTZUNA EMATEKO GAI IZAN DA UDALA

UDALAK 75 URTETIK GORAKOEN HERRITARREN AZTERKETA OSATU DU EUREN BIZI BALDINTZAK JAKITEKO ETA HAUEI LAGUNTZEKO DIRU PARTIDA BERRIA KALERATU DU

Herritarren bizi baldintzak hobetzea. Hori da Azpeitiko Udalaren helburu nagusia. Asmo horretan, orain urte batzuk Baigera jubilatuen elkartearekin elkarlanean hasi zen 65 urtetik gorako herritarren egoera ezagutu eta haien bizi baldintzak hobetzeko xedez. Bide horretan, zenbait gizarte langile 600 adinekoren etxeetara joan dira, haiek nola bizi diren aztertu eta beren iritziak jasotzeko.

Estitxu Elduainen Gizarte Zerbitzuak saileko buruak agertu duenez, azterketa horiekin udalak bi gauza lortu nahi ditu: "batetik, 65 urtetik gorako herritarren zer egoeratan bizi diren jakitea; eta bestetik, haiek udaleko Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzea, eskura izan ditzaketen baliabide eta laguntzen berri izateko". Horretarako, lehenbizi, laguntza guz-

"UDALAK BI HELBURU DITU; 65 URTETIK GORAKO HERRITARREN ZER EGOERATAN BIZI DIREN JAKITEA, ETA BESTETIK, GIZARTE ZERBITZUETARA HURBILTZEA"

tien inguruko informazioa biltzen zuen eskuorri bana bidali zien udalak 65 urtetik gorako herritar denei, eta ondoren, haien egoera aztertzeari ekin zion, baina adin tarteka bereizitako multzoetan. Iaz 80 urtetik gorako herritarren egoera aztertu zuen, 337 lagunekin zuzenean hitz eginda. Proiektuaren arrakasta ikusita, aurten gauza bera egin du, baina 75 eta 80 urte arteko herritarrekin. "Aurtengoan,

gainera, proiektuari bakardade objektiboaren eta subjektiboaren azterketa ere erantsi dizkiote", adierazi du Elduainenek. Gainera, hurrengo pausoa 65tik 75 urtera bitartekoena iristea izango dela aurreratu du zinegotziak.

80 URTETIK GORAKOEN AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

EGOERA EKONOMIKOA

Bisitatuak familien %69,7ak esan du hil amaiera ondo iristen dela dituen diru-sarrerekin. %24,9ak esan du zailtasun batzuekin iristen dela; %4,5ak nahiko larri iristen dela, eta %0,9ak ez dela iristen. Arazo ekonomikoari dagokionez, inork ez du oinarritzko beharri- zanak asetzeko zailtasunik adierazi, eta arazorik nagusia aisialdiko gastuetan antzeman da.



BAKARRIK BIZI DIRE PERTSONEN ZENBATEKOA

%27,1a bizi da bakarrik, eta horietatik gehienak alargunak dira. Hala ere, bakarrik bizi direnen artean ez da bakardade zantzu handirik aurkitu eta autonomoak eta beren buruen jabe dira gehienak, eta ondo moldatzen dira egunerokotasunean.

AUTONOMIA MAILA

Erabateko autonomia ez dutenak eta guztiz autonomoak direnak aurkitu dituzte. Hala ere, esan daiteke, nahiz eta 24 ordutan norbaiten beharra dutenak egon, oro har, adin tarte horretako jendea nahiko autonomoa da, eta eguneroko eginkizun minimoetarako ez dute inoren laguntzarik behar. Halere, etxeko garbiketa egiteko laguntza beharra nabarmendu dute askok.

ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

Orokorrean egoera onean daude etxeak, baina aipatzekoak dira aurkitu dituzten hiru oztopo arkitektoniko nagusi: bainugelen egokitasun falta, ohe artikulatuen beharra eta igogailuaren premia.

OSASUN EGOERA

%65,5ak esan du osasun maila ona duela. Gainerakoek nola-halakoa dutela adierazi dute.

ZAINTZA

Zaintzari dagokionez, %64ak zaintza laguntzarik ez du behar, eta %36ak bai. Laguntza behar dutenen kasuan, gehienek jaso egiten dute, eta behar ez dutenen erdiak ere bai. Horrek erakusten du orokorrean gehienak ondo zainduta daudela, orokorrean.

PRESTAZIOEN INGURUKO EZAGUTZA

Bisitatu diren herritar askok ez zuen zegokion diru-laguntza eta bestelako prestazioen inguruko informaziorik, eta behar adinako informazioa eman zaie, eta behararren arabera zerbitzuak eta prestazioak eman zaizkie.

75 ETA 80 URTE BITARTEKOEN AZTERKETAREN ONDORIOAK

GIZARTE ZERBITZUEKIKO EZAGUTZA

Elkarriketatuetatik gehienek ez dute

harremanik izan Gizarte Zerbitzuekin. Giza eskubideen eta babes sistemen inguruan duten ezagutza mailaz galdetzean, %15ek soilik erantzun dute nahikoa ezagutza dutela.

EGOERA EKONOMIKOA

Azterketan parte hartu dutenen %74ak esan dute erraz iristen direla hilabete amaierara, %19k zailtasunak dituztela, %5ek nahiko larri ibiltzen direla eta %2k ez direla iristen. Oinarritzko beharri- zanak asebeteta izan arren, aisialdiko eta instalazioak edo konponketak eragindako gastuak ordaintzeko zailtasunak izan dira elkarriketatuek gehien errepikatu dituztenak.

ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

Elkarriketatutako herritarrek, oro har, egoera onean dauden etxebizitzetan bizi dira, baina haietako askok, %58,4k, oztopo arkitektonikoak dituzte.

OSASUN EGOERA

Elkarriketatuen %64k osasun egoera maila ona dutela baieztatu dute, %27k hala moduzkoa dutela eta gainerako %9k eskasa. %74k bere burua aktibotzat daukate, eta oinez ibiltzea da gehienek egiten duten jardura.

HARREMAN SOZIALAK

Aztertu dituzten adinekoek oro har "oso harreman estua" dute euren familiekin. Horrek azaltzen du adinekoen %74ren zaintza familiekin beren gain hartzea.

BAKARDADEA

Bakardade objektiboari dagokionean, elkarriketatuetatik 48, bakarrik bizi dira. Haietatik %20k onartu dute bakardade subjektiboa edo tristura sentitzen dutela; alargunak direlako edota bestelako galera fisikoren bat izan dutelako.



65 URTETIK GORAKO HERRITARRENTZAT DIRU LAGUNTZA BERRIA, ABIAN

Adinekoen egoera eta beharrak ezagutzeko egindako azterketen harira, Udalak behar ekonomikoa duten 65 urtetik gorako herritarrei zuzendutako diru-laguntza osagarri berri bat onartu du, oinarritzko beharrak asetuta ez dituztenei laguntzeko.

Hala, eta 2018. urteko aurrekontuetan aurreratu bezala, 65 urtetik gorakoaren artean familia unitateko 1.080 euroko diru sarrerak bermatzea du helburu laguntza berriak, eta horretarako, 120.000 euroko diru poltsa jarri du.

Orain dela hiru urte, Baigera jubila-tuen elkartearekin elkarlanean, he-

rriko adinekoen egoera sozio-ekonomikoa aztertzeari ekin zion Azpeitiko Udalak, 65 urtetik gorako herritarrek nola bizi diren eta zein behar dituzten ezagutu eta behar horiei erantzuteko asmoarekin.

DIRU LAGUNTZAREN ASMOA
65 URTETIK GORAKOEN ARTEAN
FAMILIA UNITATEKO 1.080 EUROKO
DIRU SARRERAK BERMATZEA DA
ETA HORRETARAKO, 120.000
EUROKO DIRU POLTSA JARRI DU

“Ikerketa horrek nahiko argazki positiboa erakutsi dio Udalari; orokorrean, Azpeitian bizi diren adinekoek lautik hiruk ondo bizi direla esan dute, hala ere, euren pentsioa 1.080 euro arte osatzeko laguntza abiatu dugu”, esan du Eneko Etxeberria alkateak. Baina, era berean, hilaren amaierara iristeko arazoak dituzten adinekoak ere badirela erakutsi du, dituzten diru-sarrera eskasen ondorioz, gehienak alargunak eta emakumeak. “Hori ikusirik, eta egoera aztertu eta horren arabera baliabideak jartzea izanik gure asmoa, diru-laguntza berri hau herritarren bizitza baldintza duinak bermatzeko tresna gisa jarri dugu”, azaldu du Elduaienek.

“Azpeitiko Udalaren lehentasuna da, bere ahalmen eta baliabideen arabera, herritarren bizi baldintza duinak bermatzea, eta premia larriena duten azpeitiarrei laguntzea, batez ere zaurgarritasun edo ahuldade egoeran daudenei. Horregatik, 65 urtetik gorako herritarrentzat diru-laguntza osagarri berri bat onartu dugu, etxebizitzaren gastuak eta oinarritzko beharrak ordaintzen laguntzeko, besteak beste”, gaineratu du Etxeberriak.

“AZPEITIKO UDALAREN LEHENTASUNA DA HERRITARREN BIZI BALDINTZA DUINAK BERMATZEA, ETA PREMIA LARRIENA DUTEN AZPEITIARREI LAGUNTZEA”

Diru laguntza horiek jasotzeko honako baldintzak bete beharko dira:

1. Azpeitian erroldatuta egotea azkenengo 4 urteetan eta 6 Euskal Herrian.
2. Gehienez, honako diru-sarrerak edukitzea (etxebizitza berean bizi diren pertsona guztienak):
 - a) Pertsona bakarra bizi den kasuan, 1.080 euro hileko (12.960 urtean) baino gutxiagoko diru sarrera dutenei emango zaie laguntza osagarria.
 - b) Bi pertsona bizi diren kasuan, bien artean 1.164 euro hileko (13.968 urtean) baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenei.



- c) Hiru pertsona baino gehiago bizi diren kasuan, hiru-ren artean 1.260 euro hileko (15.120 urtean) baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenei.

3. Ondasun higigarrietan (banke-txeetako diruak) izan beharrekoa kopurua, gehienez:

- a) Pertsona bakararen kasuan: 37.800,48 euro
- b) Bi pertsona: 47.250,24 €
- c) Hiru pertsona: 51.030,24 €

4. Ohizko etxebizitzaz gain beste patrimonioirik ez izatea. (Lurrak, bigarren etxebizitza bat, lokalak...)

DIRU LAGUNTZA ESKARIAK EGITEKO, UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK SAILERA JOAN BEHAR DUTE HERRITARREK

Gutuna jaso bezain pronto herritarrek hasi dira Gizarte Zerbitzuetara jotzen eta Etxeberriak zein Elduaienek baldintza horiek betetzen dituztenak Udaleko Gizarte zerbitzuetara joan eta “gutxienez informatzera” animatu dituzte adinekoak. Hitzordua eskatzeko telefonoa honakoa da: 943 15 71 92.

Diru guztia erabiltzen ez bada, 65 urtetik beherako alargunentzat ere zabalduko da laguntza.



ESKUBIDE URRAKETAK JASAN DITUZTEN BIKTIMA GUZTIEI BABESA ETA ERREKONozIMENDUA AITORTU DIE UDALAK

'AZPEITIA 1960-2017. MOTIBAZIO POLITIKOZ URRATU DIREN GIZA ESKUBIDEAK ETA BESTE SUFRIMENDU BATZUK, AZPEITIAN ETA AZPEITIAK GERTATUAK' LIBURUA AKALERATU DU

Egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzeko, Aranzadi eta Udala azken urteetan osatzen ari diren ibilbidearen baitan, pauso bat gehiago ematera ausartu dira eta gaur oraindik ere urratzen diren giza eskubideak ikertu eta plazaratu dituzte 'Azpeitia 1960-2017. Motibazio politikoz urratu diren giza eskubideak eta beste sufrimendu batzuk, Azpeitian eta azpeitiarre gertatuak' liburuan.

Liburua uztailan aurkeztu zen udalaldean, 200 baino herritar gehiagoren aurrean. Ekitaldian izan ziren Frankismo garaitik gaur arteko alkate guztiak, Javi Buces Aranzadi zientzia elkarteko historialaria eta liburuaren egilea, Paco Etxeberria EHuko Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakaslea, Jon Mirena Landa EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen ka-

tedraduna, Eñaut Elorrieta abeslaria, eta giza eskubide urraketa bizi izan dituzten Mertxe Urtuzaga eta Manoli Uranga herritarrak.

IRAGANA AZTERTZEKO ZORROZTASUNA BEHAR DA. ETA HORREKARAKO UDALAK KONFIANTZA OSOA JARRI DU ARANZADI ELKARTEARENGAN

Iragana aztertzeke zorroztasuna behar da, eta horretarako Udalak konfiantza osoa jarri du Aranzadiarengan, irizpide zientifiko eta neutraletan oinarrituta azterketa. Izan ere, memoria historikoa lantzerakoan errazagoa

egiten da 36ko gerraren ondorioez hitz egitea, iragan hurbilagoko sufrimenduak kontatzea baino. Hala ere, Landaren arabera, liburuak "ahalegin zintzoa" egiten du indarkeria politikoko guztien inguruko informazioa emateko, "urraketa guztiak berdin tratatu behar baitira, seriotasunez".

"Ez da erraza gertatu denaz, sufrimenduz eta giza eskubideen urraketez lehen pertsonen hitz egitea. Baina gaur, beste zenbaitetan bezala sufrimendua lehen pertsonen bizi izan dugunok pauso bat aurrera emateko unea dela uste dugu. Lehen ere elkartu izan gara, Udalak abian jarritako herritarren bizikidetza foroan, eta hitz egin izan dugu gertatutakoaz elkarri begietara begira. Gertatutakoa onartuz eta iritziak errespetatuz edo konpartituz",

agertu du Angel Otaegi zenaren iloba den Mertxe Urtuzagak.

"Garai desberdinean, egoera oso desberdinean eta min erabat ezberdinak jasan ditugu, baina guztion eskubideak izan dira urratuak. Denok berdin sentituko genuen inpotentzia, amorrua eta ezin egona. Eta berdin egingo zuten malkoek begietatik beharako bidea", gaineratu du Alaitz Aguadok, Manoli Urangaren alabak.

URRAKETAK, DATUTAN

250 urraketa ezberdin identifikatu dira, **177** lagunek jasandakoak. Kopuru horretatik, **140** lagun identifikatuta daude. **250** kasuetatik, **54** urraketa, **1960-1975** artean gertatu ziren, **63** **1976-1982** artean, **127** kasu **1983-2017** artean, eta **6** kasuren data zehaztu gabe dago. Urraketak, 6 ataletan bildu dira.

1- Bizitarako eskubidea urratzea: 11 kasu dokumentatu eta beste bi herritar ofizialki enfrontamendu batean hil ziren.



2- Osotasun fisiko, psikiko eta moralaren urraketa: 109 kasu dokumentatu, horietatik 97 tortura salaketak dira. Horiez gain, 3 atentatu eta/edo eraso fisiko daude, azpeitiar enpresaburuen 2 bahiketa, 5

bortxaz atxikitze eta bi zauritu atentatu baten ondorioz.

3- Pertsonen egindako mehatxu larriak: 20 kasu identifikatuei, Azpeitian 25 lagunek eskolta eraman dutela gaineratu behar zaizkie.

4- Estortsio ekonomikoa: 7 kasu.

5- Motibo politikoz ondasun materialei egindako atentatuak: Ondasun partikularren kontra eginiko 28 atentatu; horietatik bederatzi PSEko kideei, zortzi EAJkoei, zazpi ertzainei eta hiru ezker abertzalekoei. Era berean, enpresen, alderdi politikoen eta erakundeen ondasun materialen kontrako 71 atentatu kasu zehaztu dira.

6- Motibo politikoz eragin diren beste urraketa eta sufrimendu batzuk: Hemen epaituak, exiliatuak, deportatu edo deserrituak eta dispersio politikaren ondorioak jasan dituzten presoak daude.

ALKATEEN ADIERAZPENA

Begirada kritikoa izan behar dugu gure etorkizuna eraikitzeke. Hala ere, ez da egia osoa jaso oraindik, ezinezkoa izan delako. Eskubide gehiagoren urraketa gertatu dira, eta horiek oraindik ere ikertuak izan behar dute. Bide horretan lanean jarraitzeke gure konpromisoa aldarrikatzen dugu.

Azpeitia indarkeria handia jasan duen herria da. Indarkeria horren ondorioak larriak izan dira, eta, oraindik ere, askok eta askok, ez dute merezi duten aitormena eta babesa jaso. Izen-abizenak dituzten herritarrak dira, eta, guztiei, edozein izanda ere jasan duten indarkeria mota, gure aitortza egitea nahiko genieke.

Guzti-guztiak merezi dute instituzioen/udalaren babesa jasotzea. Guretzat giza-eskubideen urraketa jasan duen herritar orok merezi du aitortza eta minaren aurrean, elkartasuna.

Batzuen ustez, urte asko, gehiegi, pasatu dira giza eskubide urraketa batzuk gertatu zirenetik, eta bere horretan uztea hobe dela diote. Baina hori ezinezkoa da herri hau oinarri sendoen gainean eraiki nahi badugu. Derrigorrezkoa da isiltasunarekin apurtzea. Egia nagusitzea ezinbestekoa da, berriro ez dadin gertatu eta beldurrak ez diezagun irabazi.

Ez da Azpeitiko Udalaren ardura osoa, baina nahiago dugu zuoi, giza eskubide urraketa jasan dituzuenoi begie-

tara begiratzea, eta beste aldera ez begiratzea. Horregatik Azpeitiko alkate eta alkate ohiok benetako aitortza egitea nahi dizuegu guztioi. Biktima guztiengana eskaintzen gara, zabaltasunean, banaka eta kolektiboki beharrezkoak dituzuen babesa gudan bila dezazuen. Badakigu urraketa jasan dituzuen askok eta askok ez duzuela beharrezko babes instituzionala jaso eta askok ez duzuela inongo justiziarik izan. Gu guztion ateak irekiak izango dituzue, edozein dela ere mina, beharrezkoak dituzuen kezkak partekatu eta gertutasunetik eta egia-rik hitz egin eta elkarriketarako.

Luxiano Lazkano, Joxe Mari Bastida, Julian Eizmendi, Iñaki Errazkin eta Eneko Etxeberria

HERRITAR OSASUNTSUAGOAK IZATEKO KIROL ORIENTAZIO ZERBITZU INTEGRALA



Ariketa fisikoak onura fisikoaz gain sozializaziorako eta pertsonen bestelako hainbat gabeziari aurre egiteko bidea eskaini dezakeela sinesten du Udalak eta helburu honekin jarri zen abian KOZ. "Ariketa fisikoa bultzatzen dugu, jendarte sanoagoa izan asmoz. Baina onura fisikoez gain, lagun artean, taldean, jarduerak egitea bultzatzen dugu; bide hori jende askorentzat sozializaziorako bultzadaxoa ere izan daitekeelako", adierazi du Estitxu Elduaien Kirole-tako zinegotziak. Iaz zerbitzua abian jarri zenetik uste hori baieztatzeko aukera izan da.

KOZ: KIROL HORIENTAZIO ZERBITZUA INDARTUTA

Iazko azaroan jarri zen abian Kirol Orientazio Zerbitzua. Zerbitzu horren

helburua da hainbat arrazoi medio kirola egiteak onura egingo dioten pertsoneri ariketa fisikoa egiteko aholkularitza eskaini eta jarraipena egitea.

HASIERA-HASIERATIK USTE BAINO HARRERA HOBEA IZAN DU, ETA ORAIN ARTEKO ASTEKO HIRU ORDUAK GUTXI GELDITU ETA IRAILETIK ASTEAN SEI ORDUZ ESKAINTZEN DA ZERBITZUA

Zerbitzu horren beharra izan dezaketen pertsoneri informazioa eman eta erabiltzaile izateko herri lan sarea sortu zen hasieratik. Hala, Udalaren

Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria, Kirol eta Parekidetasun Sailak, ikastetxe guztiak eta Baigera hasiera hasieratik inplikatu dira egitasmoan. Hala, gaur egun jarraipena egiten zaien 35-40 erabiltzaile ditu zerbitzuak.

Hasiera-hasieratik uste baino harrera hobe izan du, eta orain arteko aste-ko hiru orduak gutxi gelditu eta irailetik asteen sei orduz eskaintzen da zerbitzua.

Zerbitzuaren ordu kopurua bikoiztearekin batera, ordea, beste pauso garrantzitsu bat eman da: Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin elkar-lanean, Azpeitiko anbulatorioarekin hitzarmena sinatu da, eta medikuaren aginduz bideratuko dira herri-tarrak zerbitzu honetara: "Pauso

garrantzitsua da anbulatorioarekin elkarlanean hastea. Hemendik aurrera, Maider Aizpurua teknikaria os-tiraletan anbulatorioan ere izango da, eta herritarrek medikuek edo erizai-nek bideratuko dituzte ariketa fisikoa egitera", azpimarratu du Elduaienek.

Orain arte, Maider Aizpurua Kirol Orientazio Zerbitzuko teknikaria asteartetan kiroldegian egon ohi zen. Aurrerantzean anbulatorioan ere izango da. Herriko eragileekin osatutako saretik bideratzen dira erabiltzaileak, baina beharra sentitzen duten erabiltzaileentzat ere bada zerbitzua.



ALDAKAITZEKO PARKE OSASUNGARRIA

Herritarren eskaera bati erantzun asmoz, udan, pauso bat gehiago eman eta Loiolan, Aldakaitz baserriaren ondoan, ariketa fisikoa eta aisialdia lotzen dituen parke osasuntsua jarri zen. 14 urtetik gorako herritarrek erabiltzeko parkea osatu da. Bertan ariketa fisikoa egiteko sei makina daude: "Igerilekura edo beste azpie-gituraren batera joan beharrik gabe, aire librean ariketa egiteko gune bat jartzea genuen aspaldidanik buruan, eta hainbat herritarren eskaera ere

izan denez, jarri egin dugu", adierazi du. Jarri zenetik herritar asko dira egunero zein tarteka ariketa fisikoa egitera animatzen direnak. Hala, ma-kinen erabilera ona bultzatzeko asmoz, urrian lau saio egin ziren, Maider Aizpurua teknikariak gidatuta.

- 1.- IBILI:** Goiko eta beheko gorputz-adarreko muskuluak indartzen ditu, eta malgutasuna hobetzen du. Biotz-biriketako funtzioa hobetzen du.
- 2.- ARRAUN:** Zangoak eta pektoralak indartzen ditu eta beheko gorputz-adarreko mugimendu osoa ahalbidetzen du. Biotz-biriketako funtzioa hobetzen du.
- 3.- LEMA:** Goi gorputz-adarreko muskuluak indartzen ditu, eta besaburu-eskumuturren malgutasuna eta arintasuna.
- 4.- HOCKEY:** Beheko gorputz-adarreko mugikortasuna hobetzen du, eta koordinazioa-oreka lantzen du. Biotz-biriketako funtzioa hobetzen du.
- 5.- PEKTORALA:** Goiko gorputz-adarreko muskuluak indartzen ditu; pektoralak, deltoideak eta bizepsak.
- 6.- ZANGO-LUZATZE:** Beheko gorputz-adarreko muskuluak indartzen ditu; koadrizepsak, bikiak eta ipurmasailak.

AZPEITIBILI: OSASUN IBILBIDEAK

Kirol elkarten bidez zein Kirol Patronatuaren bidez eskaintzen diren kirol jardueraz gain, Azpeitibizi ekimena ere eskaintzen da. Proiektu horren helburua da taldean oinez ibiltzeko aukera sortzea; hala herriko poaseoetaz zein bidegorrietaz lagun artean gozatzeko aukera eskaintzen da. Ekimen hau batez ere adinduei zuzendurikoa da, eta adinduen artean ariketa fisikoa eta giza harremanak bultzatzea du helburu.

Saioak doakoak dira, eta parte hartu nahi dutenek astelehene-

tan 11:00etan edo ostegunetan 10:00etan udaletxeko arkupetara agertu behar dute.

IZARRAITZ IGERI ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN

Kirol Orientazio Zerbitzua aberaste-ra etorri da Izarraitz Igeri Elkartaren egitasmoa. "Sortu ginenetik herriak asko eman digu, era askotara. Eta ahal dugun heinean herriari ere eskaintza sozial bat egitea da gure helburua", adierazi du Aitor Berasategi Izarraitz elkartearen kideak. Asmo horri tiraka, Udalera jo zuten, eta KOZ-en eman nahi den kirol eskaintza integralaren baitan eskaintza egitea adostu zuten. Hala, astero, ordubeteko igeriketa saioa eskaintzen hasi dira, arrazoi desberdinak medio, osatutako ohiko taldeetan parte hartu ezin dutenei. Urrian hasi dira zerbitzua eskaintzen, eta 3-4 erabiltzaile dituzte gaur egun, orduerdiko bi txandatan banatuta.

Zerbitzu honetara Kirol Orientazio Zerbitzuko erabiltzaileak bideratuko dira eta Izarraitz elkartearen begiraleek egokitutako kirol federazioaren teknikarien aholkularitza jasoko du.

ZERBITZUAK KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA

Igerilekuan: Astearte: 10:00etatik 12:30etara eta 15:00etatik 17:00etara
Aurrez hitzordua hartu behar da: 688 845 119 edo koz@azpeitia.eus
Anbulatorioan: Ostirala: 11:15etatik 12:30era (medikuaren aginduz)
Doako zerbitzua
AZPEITIBILI
Astelehena: 11:00etatik 12:15era (udaletxe azpitik abiatuta)
Ostegunak 10:00etatik 11:30era (udaletxe azpitik abiatuta)
Doako zerbitzua
Informazio gehiagorako: 943 15 00 95 edo 943 15 71 92

MAZIO ESKAINTZATIK, MAZIO ZENTRORA



berriarekin bat, Azpeitiko zken urteotan hartutako jarraipena eman, eta eskaintza osatu du. bait urte, krisiaren urte ekin zion Udalak for- aintza zabaltzeari, langa- re egiteko tresna gisa.

, Deusto, UEU, IMH eta nbat elkarterekin elkar- kaintzen ditu titulu dun "Pixkanaka urratzen ari a da formazioarena. He- ertsitate eta profesional olatutako ikastaroak es- asi ginenetik herritarren ona izan da, eta urtez tzen ari den eskaintza azi du Leire Goenaga zi-

laz IMHrekin sinatutako akordioari esker, beste bide bat ireki zen: "IMHrekin beste mota bateko eskaintza eskaintzen hasi ginen, eta erantzuna oso ona izan zen, eta aurtengorako eskaintza ere hasiak gara prestatzen", gaineratu du.

**FORMAZIORAKO SALTOA
EGITEA ERABAKI ZUENETIK
ALIANZA ESTRATEGIKOAK
BILATU DITU AZPEITIKO UDALAK,
ETA EMAITZA IKUSGARRIAK
LORTZEN ARI DA**

Formaziorako saltoa egitea eraba- ki zuenetik aliantza estrategikoak bilatu ditu Azpeitiko Udalak, eta emaitza ikusgarriak lortzen ari da. Hala, urriaren hasieran, 'Lurralde' eta hizkuntza. Arnasguneen pre- bentziotik garapenera' ikastaroa egin da. Ikastaro hau UEUK anto- latzen du Kontseilua, Gaindegia, UEMA eta Gipuzkoako Foru Al- dundiarekin elkarlanean, eta erre- ferente da soziolinguistika arloan.

EHUKO UDAKO IKASTAROETARAKO SALTOA

Aurtengo udan, lehen aldiz, EHUrekin elkarlanean, bi udako ikastaro antolatu ditu Azpeitiko Udalak. Bata ekonomia lotua, eta bestea herri hezitzaile eta baloreei lotua. Lehen asmoa Basazabal



ekainean egitea bazen ere, obrak bukatu gabe zeudenez, Donostian, Miramar jauregian egin ziren.

Pauso aberasgarri eta positiboa izan zen: "Deustuko Unibertsitatea- rekin, UEUrekin zein beste hainbat eragilerekin antolatzen ditugu ikasturtean zehar formaziorako ikastaroak. Aurtengoan, EHUKo udako ikastaroekin probatu dugu, eta emaitza positiboa eta ona izan da. Aurrera begira ere urratutako bidean, gai desberdinen inguruko ikastaroak antolatzeko aukerak az- tertuko ditugu" zehaztu du Leire Goenaga Hezkuntza zinegotziak.

25 URTETIK GORAKOENTZAT BEKAK

Formazioa eskaintzeaz gain, formaziorako beharra edo nahia duten herritarrentzako laguntzak ere baditu Udalak. Beka sistema honen helburua da pertsona horientzako formazioa eskaintzea, eta horrela, lan-mundura sartzea erraztea edota lan baldintzak hobetzeko aukerak sortzea. 25 urtetik gorako langabetu edota %50eko lan jardunaldian ari direnei zuzendurik dago udal laguntza propio hau: "Ez dugu gure herritarrak formatu gabe gelditzea nahi arazo ekonomikoak medio, eta horri aurre egiteko jarri genuen abian beka sistema hau", gaineratu du Goenagak.

Diruz lagun daitezkeen formazio ekintzak:

- Profesionaltasun egiaztagiria lortzeko edozein mallatako formazio ekintzak.
- Lanbide heziketako zikloak egiteko formazio ekintzak.
- Beste formazio ekintza mota batzuk, betiere Udalak aztertu ondoren, ikusten baldin bada gizartearentzat esangura.

Matrikulä (590 euro arte), joan- etorriak eta ikas materialaren erosketa gastuak laguntzen ditu Udalak. Laguntzak urte guztian eskatu daitezke udaletxean.



FORMAZIO ZENTROA, BASAZABALEN

Enparan kalean aurkitzen den Basazabal jauregia urte luzez itxita izan da, baina urtea bukatzerako erabat eraberrituta eta herritarren zerbitzura izango da.

Eraikin hori bi funtzio nagusitarako izango da; alde batetik, lehen so- lairuan turismo bulegoa izango da;

bestetik, berriz, bigarren eta hiru- garren solairuak formaziorako ego- kitutako gelak izango dira. "Gure helburua da, gaur egun dugun for- mazio eskaintza eraikin horretara bideratzea, eta formaziorako erre- ferentzia nagusia izatea eraikina", azaldu du Leire Goenaga Hezkun- tza zinegotziak.

Obrak azken fasean dira, eta aurreikuspenen arabera, azaroaren bukaera alderako irekita izango da.

IKASTARO ETA JARDUNALDIK

Bestehainbat ikastaro ere antolatuko dira urtea bukatu bitartean, baina gaur gaurkoz, ikastaro eskaintza hau du abian Udalak Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean.

IKASTAROA

'Ilusioarekin bizitzeko gakoak'

- Irakaslea: Pablo Cueva
- Datak: Azaroak 5, 12, 19, 26, abenduak 3, 10
- Ordutegia 16:30-18:30

JARDUNALDIK

Big data

- Eguna: Azaroa 29

3. adina aztertzen

- Eguna: Abenduak 17
- Landuko diren gaiak: aldaketa soziodemografikoak eta datozen 10 urterako aurreikuspenak, bakardadea, erabakiak.

URRIA

27. LARUNBATA

1766 AZKOITIKO eta
AZPEITIKO GARIAREN
MATXINADA

AZPEITIKO KULTUR MAHAIA
22:00etan, Soreasu Antzokian

AZAROA

1. OSTEGUNA

Helduentzat

LUR-XAKE PRODUKZIOAK
19:00etan, Soreasu Antzokian

2. OSTIRALA

Helduentzat

7ak Bat-ATX TEATROA
21:30ean, Soreasu Antzokian

3. LARUNBATA

Helduentzat

Txarriboda-HIKA TEATROA
21:30ean, Soreasu Antzokian

4. IGANDEA

Haur + Helduentzat

Inondik Inora-BENETANBE
KONPAINIA
17:00etan, Soreasu Antzokian

5, 6, 8. ITA

SORMEN ASTEA

AZAROAK 5. ITA 6

Antzerki tailerra: Oier Guillan eta Jabier
Barandiaranen eskutik **Tartean**
dauden gorputzak ikastaroa izango
da hiru egunetan zehar.

AZAROAK 8. OSTEGUNA

MIKROANTZERKIAK

MAITA(K) ALE BORROKA

20:00etan, Plaza Nagusia

KRONOPIA

21:00etan, Sanagustin Kulturgunean

AZAROAK 7. OSTIRALA

Kulturaz Antzerki Sormen Egonaldiak
2019ko deialdi berriaren
aurkezpena

12:00etan, Sanagustin Kulturgunean

7. OSTIRALA

Helduentzat

Oxido-PEZ LIMBO
21:30ean, Soreasu Antzokian

10. LARUNBATA

Helduentzat

Dublindarrak-ADOS TEATROA
21:30ean, Soreasu Antzokian

11. IGANDEA

Haur + Helduentzat

Ulises-GORAKADA

17:00etan, Soreasu Antzokian

Xokolat (0-3 urteko umeentzat)

PARAISO TEATROA

17:00etan, Sanagustin Kulturgunean

12, 13, 14. ITA 15

ESKOLA EDO GAZTETXOEI
ZUZENDURIKO ANTZERKIA

11:00etan eta 15:30ean,

Soreasu Antzokian

2. ITA 18. ITA

"TXONTXONGILOEN AMETSAK"

Corrado Masacci-ren

Txontxongilo metodologia

Betharram Aretoan, Goiz Arratsaldez

15. OSTEGUNA

Helduentzat

Takoidun Zapata Gorriak

PISZIFAKTORIA-21:00etan,

Udaletxeko Ganbaran

16. OSTIRALA

Helduentzat

Elurra-EROMEN PRODUKZIOAK

21:30ean, Soreasu Antzokian

17. LARUNBATA

Helduentzat

Roman eta Julieta

BOROBIL TEATROA

21:30ean, Soreasu Antzokian

18. IGANDEA

Haur + Helduentzat

Linbo Planeta

DEJABU PANPIN LABORATEGIA

17:00etan, Soreasu Antzokian

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI

ALTERNATIBOA

22. osteguna

Tomiris eta Agur eta Dolore

KAMIKAZ KOLEKTIBOA

ETA TTAK TEATROAK 21:30ean,

Gaztetxean

Arratsaldeko 20:00etatik

21:15etara jantoki bejetarianoa

24. LARUNBATA

XXXVI. Euskal Antzerki

Topaketen Amaierako

Ikuskizuna

Martin Zalakain

ARTEDRAMA

21:30ean, Soreasu Antzokian

ZATOZ ETA GOZATU EUSKAL ANTZERKIAZ!

XXXVI. EUSKAL ANTZERKI TOPA KETAK AZPETA



2018-ko UPADZKENA

